

HERNANIK kronika

2003 urtea
Urtarrilak 23
Osteguna
Alea: 675
www.hkronika.com



Udaletxeko Kooperazio Arloaren laguntzaile taldeko kideetako batzuk, Saharen aldeko ekitaldia aurkezten, Biterin.

Saharako herriaren aldeko elkartasun ekitaldia larunbatean Plaza Berrian

■ Udaletxeko 'Kooperaziorako Arloaren talde laguntzaileak' antolatu du ekitaldia ■ Plaza Berrian, Sahari buruz informazioa emango da eta Polisarioko ordezkariek ere Hernanin izango dira.

LARUNBATEAN Saharen aldeko ekitaldia egingo da Hernanin, Udaletxeko Kooperaziorako Arloaren talde laguntzaileak antolatuta. Talde honen prentsaurreko eman zuen asteartean elkartasun ekitaldia aurkezteko, eta han azaldu zutenez Sahara egoera kritikoan dago. Damian Pedrosak adierazi zuen Saharako herriak askatasunaren alde 27 urte daramazkiela borrokan, eta gaur egunean, hasieran bezalaxe daudela.

Marruekosi presioa egin

Marruekos eta Saharen arteko auzia Nazio Batuen eskuetan dago, eta Segurtasun Kontseiluak gutxi barru erabaki lezake zein pake proposamen bultzatu. Nazio Batuek autonomia proposatzen diete, baina, Polisarioak esana du hori ez duela onartuko. Egoera horretan, Saharen aldeko taldeak dio Nazioarteko era-kundeak ez direla ari agindutako betetzen, eta gutxitzen ari direla, bai Sahararekin

elkartasuna eta baita Marruekosekiko presioa ere. Pedrosaren esanetan, Elkartasun eta presio hori berpiztea eta indartzea da larunbateko bezalako ekitaldien helburua.

JESUS REBOLLO

ZINEGOTZIA

"Komunitate internazionalak Sahara ahaztu egin du eta, maila batean, Marruekosekin kolaboratzen ari da."

Plaza Berrian Haima eta Polisarioko ordezkariek
Elkartasun ekitaldian *Haima* haundi bat jarriko dute Plaza Berrian eta han Saharari buruzko informazioa eta argazki erakusketa jarriko dituzte. Horretaz gain, lagunza firmak emateko eta janaria biltzeko aukera ere izango da (arroza, azukrea, atuna, oliao, lentejak,

garbantzuak...).

Ekitaldia goizeko 11:00- etan hasiko da eta Frente Polisarioak Euskal Herrian duen ordezkarri nagusia ere Hernanin izango da larunbatean, Saharako berri emateko. Elkartasun ekitaldiari Saharako giroa emateko tea hartzeko aukera ere izango da.

Gosea Marruekosen arma
Jesus Rebollo zinegotziak gogor kritikatu zuen Nazioarteak Sahararekin hartzen ari duen jarrera. Bere ustez, ONU, Espainia, Frantzia eta abar ez dira ari betetzen bere garaian hartutako konpromisoak. Betetzen ari ez diren konpromiso bat jana bidaltzearena da. Rebollok esan zuen ez dela kasualitatea justu orain etortzea jan esasia, egoerak *zirt* edo *zart* egin behar duenean. Zinegotziaren iritziz, estrategia berri honekin Marruekosek gosaren bidez lortu nahi du armaz eta presio internazionalaren bidez lortu ez duena.

Rebollok garbi utzi zuen egoera oso-oso larria dela. Nazio Batuen Erakundeak (ONU) Saharari eskubideak aitortu bai, baina, gero praktikan jartzeko aukerarik ematen ez badio, Rebollok galdu zuen ea Saharari zer bide gelditzen zaion askatasunaren aldeko borrokan.

Prentsurrekoan Hernanin bizi den Elbar Bujari Sahararrak ere hitz egin zuen. Bere iritziz Marruekosek momentu honetan ez du inongo presiorik eta Sahararekin "jolasean" dabil. "Marruekosek ez ditu bere herritarren eskubideak errespetatzen, eta gureak ez ditu errespetatuko. Hori bistakoa da." esan zuen Bujari sahararrak. Bujarik esker zuen haurrak familietan hartzen dituztenen lana eta beste herritarrena ere bai.

Hala ere, Bujarik pauso bat gehiago ematea eskatu zien herritarrei eta erakunde publikoek presioa egiteko, presio hori Marruekosera iritsi dedin. □

'Trieb' musika taldeak kontzertua emango du astelehenean

TRIEB laukoteak kontzertua emango du datorren astelehenean Biteri kultur etxearen, 19:30etan. Musika estilo asko jotzen dituzte bajua, bateria, kitarra eta teklatuarekin. Maketa bat grabatu berria du *Trieb*-ek eta datorren astelehenean 10 kantu joko dituzte, asko berenak eta baita beste zenbait talderenak ere. Kontzertua Udal Hezkuntza Batzordeak eta Musika Eskolak antolatu dute. □

Txantxangorri elkartean zabaldu da mus txapelketarako izen ematea

TXANTXANGORRI elkartean zabalk dago mus txapelketarako izen ematea. Urtarrilaren 31 arte eman liteke izena Txantxangorri elkartean bertan. Apuntatu ahal izateko sozioa behar du bikoteko batek behintzat. Partidak otsailaren 3an hasiko dira. □


Osiñagako auzo elkarreka bilera du datorren igandean

OSIÑAGAKO auzo elkarreka lau puntu eztabaidatuko ditzo datorren igandeko bilera. Lehenengo puntuauzoko beharrak eztabaidatuko dituzte eta eskaera berriak jaso ere bai. Bigarren puntuauzoko Olazagirre zerraren auzian auzo elkartearren jarrera finkatzen saiatuko dira, epaitegiak Udalak eman zuen baimena baliogabetu eta gero. Hirugarren puntuauzoko Osiñagako jaien ingurukoa izango da, egutegia finkatu eta jai batzordea osatzea alegia eta laugarruen puntuauzko abiadura haundiko trenaren kontrako manifestazioari buruz ariko dira. Trenaren kontrako manifestazioa dago otsailaren 1ean Tolosan eta Osiñagako auzo elkarreka manifestazioa joateko deia egiteko du. □

Allianz
ASEGURUA
Agustin Ezponda
AGENTZIA
Tel.: 943 557 326
656 735 109

ZINGI-ZANGA
Jatetxea
Ostiraleko larunbatetan afa-riak ematen ditugu.
Florida 54
Tel: 943 33 03 97

**OIALUME ZAR
SAGARDOTEGIA**
Bihar, urtarrilak 24,
zabalduko dugu.
943 55 29 38
OIALUME AIZKOA



GAUR ARRATSALDEKO 16:00ETATIK AURRERA ERREMONTTE JAIALDIA:

- partidua: LARREA - GAZTELU / UTERGA - RECLUSA
- partidua: EZKURRA - AIZPURU / ZEBERIO II - LIZASO
- partidua: ALTUNA I - AIZPURUA II / BEREZIARTUA - ETXABE
- partidua: SARASUA - MENDIZBAL / IRIBARREN - BADIOLA

Argitaratzailea: Dobera Euskara Elkarteak. Errredakzioa, argazkiak eta publizitatea: Hernanik Komunikazioak. J.M.Irazu U. Agirre, E. Agirre eta A. Zerai. Egoitza: Larramendi 11. ☎: 943-330899. Fax: 943-336306. Eposta: kronika@topagunea.com. Lege gordailua: SS-679/2000. ISSN 1576-8422.

Euskal Herriak Bere Eskola taldeak mintegiak egingo ditu datorren larunbatean Zarautzen

■ Mintegirako izena eman nahi duenak Hernanik Bere Eskola taldeko norbaitekin hitz egin; edo 696 200570 telefonoan edo ahbe@euskalerria.org helbidera idatzi.

EUSKAL Herriak Bere Eskola taldea Euskal Herriarentzat hezkuntza sistema propioa aldarrikatzen duen talde bat da. Euskal Herri mailako taldea da, baina, herriko herriko talde txikiagoak ditu eguneroko lanerako. Sei lehentasun finkatuak ditu:

- 1) Eskolak euskaldundu behar du
- 2) Lanbide heziketak euskeraz
- 3) Euskeraz ikasteko eskubidea.
- 4) Euskal eskolak bere kurrikulumoa.
- 5) Haur escola euskaldunak, heitziaileak eta herritarra.

6) Euskal Herriak euskal unibertsitatea.

Mintegia larunbatean

Euskal Herri mailako mintegia izango da datorren larunbatean Zarautzen, 09:30etatik 18:00etara. Euskal Herriak Bere Eskolan lan egin lezakete profesionalek, ikasleek eta baita interesatutako beste edozeinek ere. Sei lan talde sortuko dira: lehentasun bakoitzeko bat. Mintegietan 3 fasetan landuko du talde bakoitzak bere lehentasuna:

Lortu nahi diren helburuak zein diren markatu, helburu horien inguruan zein adibide dauden ikusi eta helburu horiek nola aurrera eraman aztertu.

Mintegirako izena emateko Hernanik Bere Eskola taldeko norbaitekin hitz egin, 696 200570 telefonora deitu edo ehbe@euskalerria.org helbidera idatzi, eta ingresa egin Euskadiko Kutzako 3035 0086 61 0860027919 zenbakian (ikasleek 6 euro eta besteek 10 euro, bazkaria barne). □

■ ERREMONTEA -BINAKAKO TXAPELKETA

Altuna-Eizagirre lehen postuan jarri dira Altuna II-Etxaberi 40-37 irabazita


ERREMONTKO Binakako txapelketa aurrera dijioa. Asteartean, Altuna eta Eizagirrek pauso oso garrantzitsua eman zuten Euskaldeko finalurrekoetan sartzeko, Altuna II eta Etxaberi irabazita. Partidua Altuna II eta Etxabek izan zuten hala ere menpean eta 28-21 irabazten ere joan ziren. Partidu bukerara, ordea, Eizagirre iritsi zen sasoikoena eta buelta ematea lortu zuen, latz jokatuta. Punta puntako partidua izan zen. Sailkapena: 1) Altuna I-Eizagirre 4 puntu; Altuna II-Etxabe, 3 puntu; Iñigo-Lizaso, 3 puntu; Ezkurra-Urko, 3 puntu; eta Zeberio II-Aizpuru, puntu 1. Gaur ez dago txapelketako partidurik baina Galarretan jaialdia izango da 16:00etan hasita. □



Eizagirre lurrera salto eginda pelota bat eramatzen.

ESKOLA KIROLA

ASTEBURUKO EMAITZAK



Langile, Urumea, Elizatxo eta Txirritako pelotariak lehengo larunbatean.

Pelota	Taldeak	Emaitza
Alebinak	Langile C-Uruma B	5-0
Alebinak	Uruma A-Langile D	0-5
Alebinak	Langile A-Uruma E	5-3
Alebinak	Langile B-Elizatxo B	2-5
Alebinak	Txirrito-Elizatxo A	5-1
Saskibaloi		
Alebin neskak	Langile M-Auxiliadore	64-20
Alebin neskak	Uruma A-Zumalak	9-31
Alebin m utilak	Elizatxo A-Langile A	27-31
Alebin neskak	Elizatxo B-Hm aculada	28-31

Futbolsala	Taldeak	Emaitza
Infantilak	Antigua-Langile	4-3
Benjamínak	Langile A-Uruma ea	0-3
Benjamínak	Elizatxo B-Elizatxo A	3-0
Benjamínak	Langile C-Langile B	2-1
Boleibola		
Kadeteak	Langile Landaberriz	3-0
Alebinak	Elizatxo LSB	2-1
Alebinak	Uruma A-M undaiz	2-1
Erregbi		
Benjamínak	Elizatxo A-Elizatxo B	1-1
Benjamínak	Hm aculada-Langile B	1-2



Luber bideo denda irekita egoten da txartelak hartu ahal izateko.

Kardaberaz kalean bideo denda berria ireki dute

■ Pelikulak VHS eta DVD formatoetan ■ Sandwich eta goxokiak ematen dituzten makinak ere jarri dituzte.

LUBER bideo denda berria ireki dute Kardaberaz kalean. Bideoak makinetan hartzen dira, harpide txartelarekin. Txartelak egiteko ordutegia da 11:30etatik 21:00etara, astelehenetik igandera, eta makinetan egun osoz hartu litezke bideoak. Luberreko arduradunek esan digitenez, era guztietako bideoak dauzka, gaika sailkatuta. Berezienak agian animazioa eta Zine Klub sailak dira. Animazioan marrazki bizidunetako pelikulak dauzka eta Zine Klub sailean pelikula

alternatiboak: zine europearra, vietnamita, argentinarra... festibaletan sariak atera arren ikusteko aukera haundiegirik ez dauden bideoak. Bideoak hartu ahal izateko txartela egin behar da Luberren, eta otsailaren 3 arte deskuentoak daude hainbesteko kopuru bat hartzeagatik.

Sandwich eta goxokiak
Luber dendak sandwichak, goxokiak eta litxarreria ere badauzka makinetan, jendeak nahi duen orduan hartzeko, bideo pelikulez gain. □

Hizkuntz Eskubideen Behatokia euskerari egindako erasoak salatzeko

HIZKUNTZA eskubideak zapaltzen direla ikusi ezkero, bada non kejatua edo non informatua. Hizkuntz Eskubideen Behatokia salaketak jaso eta zer egin aholkatzeko eta horretan laguntzeko sortu da. Telefonoa 902 194 332 da. Telefonoz deitezaz gain, erre-

klamazio horri bat ere bidali behar da behatokira. Informazio gehiago www.behatokia.org helbidean dago. Hernaniko Euskal Herrian Euskaraz taldeak herritarra animatu ditu Euskara Zapaldua ikusten denean behatokian kejatzera. □

ZERBITZUAK

TELEFONOAK

- Taxiak: 943 550093
- Udaltzaingoa: 943 333288
- DYB: 943 464622
- Autobusak: 943 556662
- Anbulatorioa: 943 006666
- Jokalari anônimoak: 943 331103

FARMAZIAK

- Egunez: Bulnes Florida auzoa
☎ 943 557738
- Gauzez: Tanco Urnieta. San Juan 36
☎ 943 550942

IRAGARKI MERKEAK

Umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko pertsona bat behar dut. Goizeko 8:00etatik 15:00etara. Deitu: 943 55 58 40 (Arratsaldeko 19:00etan aurrera)

**Hernaniko Kronika
interneten**

www.dobera.com helbidean